

Alkatearen probidentzia

Oñatiko Udaleko Giza Baliabide eta Antolaketako arduradun (A1) lanpostua hutsik dago eta bitartekoz bete behar da.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena, bere **58. Artikuluak** dio:

"1- Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluena izatea bideratzen dutela.

2- Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.

3- Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.

4- Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoez baliatzeko aukera egongo da."

Halaber, abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2022 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19. artikuluan, honako hau xedatzen du: *"Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik eta bitarteko funtzionarioen izendapenik egin ere, albuespenezko kasuetan izan ezik, eta premiazko eta atzeraezinazko beharrianak betetzeko."*

Izendapena egiteko inguruko udaletan Giza Baliabideetako lan-poltsak eskatu dira, baita AOT lan-poltsak ere. Horietara jo ostean, hautagaietako batek ere ez du lan eskaintza onartu.

Kontratazio bat egitea beharrezkoa da, zerbitzu egoki bat bermatzeko. Horregatik, komenigarria eta beharrezkoa da enplegu zerbitzu publikoetatik hautagai bat izendatzea.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN DUT:

1.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, Giza Baliabide eta Antolaketa arduradun (A1) lanpostua, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, 10.1.a artikulua arabera:

"10. artikulua. Bitarteko funtzionarioak.

1. Bitarteko funtzionarioak dira, berariaz justifikatutako beharrian- eta presa-arrazoiak direla medio, karrerako funtzionarioen berezko eginkizunak betetzeko aldi baterako bitarteko funtzionario izendatzen direnak, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Plaza hutsak egotea, karrerako funtzionarioek bete ezin dituztenean, gehienez ere hiru urterako, 4. paragrafoan aurreikusitako baldintzetan."

Hileko soldata gordina lanpostuari dagokiona izango da.

2.- Honako hau eskaintzen da:

Giza Baliabide eta Antolaketako arduraduna (A1) lanpostua, behin betiko bete arte

Jardunaldia: %100

Hileko soldata gordina: lanpostuari dagokiona: 4410,56€

3.- Hautagaiak hautatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

3.1.- Beharrezko prestakuntza

- Titulazioa: Zuzenbidean, Zientzia Politiko, Ekonomia zientzia edo Enpresa zientzian lizentziatua edo Merkataritzako intendentea, Unibertsitate gradua edo lizentziatura.
- Hizkuntza-eskakizuna: 4.

3.2.- Merezimenduak (20 puntutik)

3.2.1.- Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak (5 puntu)

- Lanpostuaren eginkizunekin lotutako gaietan zerikusi zuzena dutenak. Gehienez ere 5 puntu arte baloratuko dira. Balorazio horretarako orduak baloratuko dira eta 0,05 koefizienteaz biderakatuko dira, betiere lor daitekeen gehienezko muga kontuan hartuz. Soilik hartuko dira kontuan oinarriak argitaratu baino 10 urte lehenagoko ikastaro-tituluak.

3.2.2.-Titulu akademiko ofizialak. Deialdian parte hartzeko beharrezkoa denaz bestelako tituluak, bai eta masterrak, diplomak eta unibertsitateen berezko tituluak ere, betiere erabilgarriak badira deitutako lanpostuan aritzeko.

- Unibertsitateko masterreko eta/edo doktoradutza titulazioa, edo baliokidea (2 puntu, gehienez 5 puntu)
- Maila bereko tituluak (diplomatura edo gradua), edo baliokidea (puntu 1, gehienez ere 5 puntu)

3.2.3.- Lanbide-esperientzia (gehienez 10 puntu)

- Giza Baliabide eta Antolaketako arduradun (A1) edo baliokidea → 0,20pt/hilea
- Giza Baliabide eta Antolaketako Teknikari (A2) edo baliokidea → 0,15 pt/hilea
- Administrazio Orokorreko Teknikaria (A1) → 0,12 pt/hilea
- Kudeaketako erdi mailako teknikaria (A2) → 0,09 pt/hilea

*** Oñatiko Udalak esperientzia eta formazioa ziurtatzeko eskatu dezake.**

4. Epaimahaikideak:

Idazkaritzako AOT

GGBB eta Antolaketako teknikaria

Oñatin, sinadura elektronikoan agertzen den datan

Alkatea

Sin.: Izaro Elorza Arregui

Oñatiko Udala

Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • onati.eus



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	GGBB eta Antolaketako arduraduna Lanbidetik
CSV/EKS:	SINA1b6c96db-8cb3-41e6-a7ad-1b4ebc169c1c